



# NAFARROAKO PARLAMENTUKO

## ALDIZKARI OFIZIALA

X. legegintzaldia

Iruña, 2021eko apirilaren 21a

48. ZK.

### A U R K I B I D E A

#### B SAILA:

##### **Foru lege proposamenak:**

—Foru Lege proposamena, Nafarroako Abereen Osasunari buruzko azaroaren 16ko 11/2000 Foru Legea aldatzekoa. Nafarroako Alderdi Sozialista eta Geroa Bai talde parlamentarioek eta Nafarroako Podemos-Ahal Dugu foru parlamentarien elkarteak aurkeztu dute (3. or.).

#### F SAILA:

##### **Galderak:**

- Galdera, urriaren 21etik Nafarroako Jauregian egindako aperitibo, bazkari edo afariei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (5. or.).
- Galdera, sozietateen gaineko zergan zerga-oinarri negatiboen aplikazioa galtzeari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (6. or.).
- Galdera, autonomoen PFEZaren tributazioari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (7. or.).
- Galdera, Refenaren instalazioak erabiltzeagatik ordaindu ez izanari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (7. or.).
- Galdera, sektore publikoak finantza-erakundeei komisioak ordaintzeari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (8. or.).
- Galdera, Next Generation suspertze-programa europarraren funtsak atzemateko proiektuei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (14. or.).
- Galdera, LOMLOEn 591. kidegoan dauden Lanbide Heziketako irakasle teknikoei emanen zaien tratamenduari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (15. or.).
- Galdera, “Asimetria hibridoak” arautzen dituzten zuzentarauen transposizioari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (17. or.).
- Galdera, kulturako lanbideei buruzko lege proiektu bat bultzatzean Nafarroako Gobernua premiatzen duen mozioa betetzeko ekintzei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (18. or.).
- Galdera, Leringo lurzatiak biltzeko prozesuari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (19. or.).
- Galdera, babesgabetasuneko edo gizarte-gatazkako egoeran dauden adingabeentzako egoitza-harrerako 40 plazako zerbitzuaren kontratuari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (20. or.).

- Galdera, zailtasun edo gatazka sozialeko egoeran dauden adingabeentzako egoitza-arretako 15 plazako zerbitzuaren kontratuari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (21. or.).
- Galdera, Tafallako Gizarteratzeko eta Laneratzeko Taldearen zerbitzuaren kontratuari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (22. or.).
- Galdera, Iruñeko/Tuterako Familia Elkartzeko Guneko zerbitzuaren kontratuari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (23. or.).
- Galdera, Tafallako/Lizarrako Familia Elkartzeko Guneko zerbitzuaren kontratuari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (24. or.).
- Galdera, adopzioaren ondoko familia-laguntzaren zerbitzua emateko eta familia hartzaileei akonpainamendua egiteko zerbitzuaren kontratuari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (24. or.).
- Galdera, Aita Menni eta Benito Menni egoitzen itunari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (25. or.).
- Galdera, Familia Orientazioko Zerbitzuaren kontratuari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (26. or.).
- Galdera, toki entitateei haur-eskolen eskaintza baimentzeari buruzkoa, 2021-22 ikasturterako unitate kopuruari eta hizkuntza-modalitateari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (26. or.).
- Galdera, Nafarroako Gobernuaren Audenasarentzako ekarpena kalkulatzeko lantaldeari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (27. or.).

**B saila:**  
**FORU LEGE PROPOSAMENAK**

## Foru Lege proposamena, Nafarroako Abereen Osasunari buruzko azaroaren 16ko 11/2000 Foru Legea aldatzekoa.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko apirilaren 19an egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoaren 19.1.b) artikulua aitortzen dien legegintzarako ekimena erabiliz, Nafarroako Alderdi Sozialista eta Geroa Bai talde parlamentarioek eta Nafarroako Podemos-Ahal Dugu foru parlamentarien elkarteak aurkeztu dute Nafarroako Abereen Osasunari buruzko azaroaren 16ko 11/2000 Foru Legea aldatzeko Foru Lege proposamena, eta presako eta irakurketa bakarreko prozeduraz izapidetu dadin eskatu dute (10-21/PRO-00008).

Hori horrela, Legebiltzarreko Erregelamenduko 110., 111., 148. eta 158. artikuluetan ezarritakoarekin bat, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hona ERABAKIA:

**1.** Nafarroako Abereen Osasunari buruzko azaroaren 16ko 11/2000 Foru Legea aldatzeko Foru Lege proposamena Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**2.** Foru lege proposamena presako eta irakurketa bakarreko prozeduraz izapidetzea.

**3.** Foru lege proposamen hori Nafarroako Gobernuari igortzea, Erregelamenduko 148. artikuluan ezarritako ondorioetarako, eta Nafarroako Gobernuari adieraztea bere iritzia emateko epea zortzi egunekoa dela.

**4.** Zuzenketak aurkezteko epe bat irekitzea, eztabaidari ekiteko Osoko Bilkuraren egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan bukatuko dena. Zuzenketak Legebiltzarreko Mahaiari aurkeztu beharko zaizkio.

Iruñean, 2021eko apirilaren 19an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

## Nafarroako Abereen Osasunari buruzko azaroaren 16ko 11/2000 Foru Legea aldatzeko Foru Lege proposamena

### ZIOEN AZALPENEA

Martxoaren 20ko 31/2019 Foru Dekretuaren bidez ezarri ziren abeltzaintzako ustategiek eta horien instalazioek Nafarroako Foru Komunitatean bete behar dituzten baldintza higieniko-sanitarioak, animalien ongizatekoak eta antolamendu zooteknikokoak.

Foru dekretu horren 5. eranskinean Nafarroako abeltzaintza-ustategien tamaina mugatzen da, epidemia-arriskuak direla-eta, halako moduz non ustiategi berriek edota jada badaudenen zabal-kundeek ezin izanen dituzten gainditu ondoko gehienezko tamainak:

USTIATEGI-MOTA	GEHIENEZKO TAMAINA	
	Postuak edo azienda larriko unit. <sup>(1)</sup>	
Txerri-azienda	Azienda larriko 864 unitate	
Broiler oilaskoak eta hegaztiak oro har	300.000 toki	
Arrautzetarako eta hazteko oiloak	300.000 toki	
Ugalketarako oiloak eta haiek haztea	60.000 toki	
Kanpora irteten diren hegaztiak	50.000 toki	
Galeperrak	600.000 toki	
Esetarako behiak	Azienda larriko 1.250 unitate	
Haragitarako behiak <sup>(2)</sup>	Azienda larriko 1.250 unitate	
Esetarako ardi eta ahuntzak	6.000 ugaltze-animalia	
Haragitarako ardi eta ahuntzak	8.000 ugaltze-animalia	
Zaldiak	Azienda larriko 1.250 unitate	
Untxiak	Azienda larriko 600 unitate	
Erleen kokalekua <sup>(3)</sup>	200 erlauntza	
Espezie desberdinak dituzten ustategiak	Azienda larriko 1.250 unitate	

(1) Azienda larriko unitate Koadro honetako azienda larriko unitateak kalkulatzeko, aintzat hartuko dira 1. eranskineko azienda larriko unitateen baliokidetzak.

(2) Azienda suharraren ustategiak barne.

(3) Gehienezko tamaina erleen kokalekuena da, baina ustiategi batek berak kokaleku bat baino gehiago izan ditzake.

Nafarroako Justizia Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salak emandako 114/2020 epaiak, 2020ko ekainaren 8koak, balio-gabetu egin zuen behi-azienden sektoreko abeltzaintza-ustiategien tamainari jarritako muga, eta halaber balio-gabetu zuen jada badauden behi-azienden sektoreko abeltzaintza-ustiategien handitze-ezintasuna, gehienezko tamaina hori gaindituz gero.

Gaur egun, Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentuak Abereen Osasunari buruzko azaroaren 16ko 11/2000 Foru Legea aldatzeko foru lege proiektu bat prestatzeko izapideak hasi ditu, bertan jasotze aldera Nafarroako ustiategietan animalien osasun-baldintza egokiak bermatzeko beharrezkoak diren tamaina- eta edukiera-betekizunak. Hori dela eta, aurreikusten da hurrengo hilabeteetan iritsiko dela Nafarroako Parlamentura Foru Komunitatean abeltzaintza-ustiategiak jartzeko baldintzak ezarriko dituen foru lege proiektua.

Hala ere, aipatu araua izapidetzen den bitartean, premiazkoa da luzapen bat onestea, galaraziko duena Nafarroan behien ustiategietarako inolako edukiera-mugarik ez egoteak –gainerako ustiategietarako ez bezala– kalte konponezinak ekartzea zaindu nahi den interes publikoari, lege-

ak izapidetu, jendaurrean jarri, sektoreari kontsulta egin eta, kasua bada, Parlamentuak onesteko behar den denboran zehar.

Hori dela eta, beharrezkotzat jotzen da Nafarroako Abereen Osasunari buruzko azaroaren 16ko 11/2000 Foru Legea aldatzea, honela:

**1. artikulua.** Nafarroako Abereen Osasunari buruzko azaroaren 16ko 11/2000 Foru Legea aldatzen da, hari hirugarren xedapen iragankor bat gehituz. Hona hemen testua:

“Hirugarren xedapen iragankorra. Etetea.

1. 2022ko maiatzaren 30era arte ez da eskabiderik onartuko, ez eta abeltzaintza-baimenik emanen ere, azienda larriko 1.250 unitate baino gehiagoko edukiera duten behien abeltzaintza-ustiategiak jartzeko.

2. Halaber, ez da eskabide berririk onartuko, ez eta baimen berririk emanen ere, jada badauden behien abeltzaintza-ustiategiak handitzeko, baldin eta zabalkundearen emaitza azienda larriko 1.250 unitate baino gehiagoko ustiategia izanen bada”.

**Azken xedapena.** Foru lege honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitara eman eta biharamunean hartuko du indarra.

---

**F saila:**  
**GALDERAK**

---

**Galdera, urriaren 21etik Nafarroako Jauregian egindako aperitibo, bazkari edo afariei buruzkoa.****FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA**

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Marta Álvarez Alonso andreak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, urriaren 21etik Nafarroako Jauregian egindako aperitibo, bazkari edo afariei buruzkoa. Galdera 2020ko abenduaren 4ko 136. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2021eko martxoaren 1ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

**ERANTZUNA**

Urtarrilaren 25eko erabaki batek Nafarroako Gobernua premiatzen du erantzun diezaion Navarra Suma talde parlamentarioko Marta Álvarez Alonso andreak egindako PES-00317 idatzizko galderari, Nafarroako Jauregian urriaren 21etik egindako aperitibo, bazkari eta afariak direla-eta.

Egindako galderari dagokionez, horren errepikapena jaso baita, hona erantzuna: iragan urriaren 21etik, eta galderan aipatutako egunetan, Nafarroako lehendakariak lan-bazkari batzuk izan ditu, eta ez da afaririk egin.

Hiru bazkari egin dira CENeko buruarekin, Nafarroako Unibertsitateko errektorearekin, Accionako zuzendaritzako kideekin eta atzerriko gobernu baten ordezkariarekin. Gainerako bazkariak Gobernuo kideekin egin dira, eta bat lantaldeare-

na izan da, kontuan izanik lehendakariak ez duela egunero Jauregian bazkaltzen.

Ez da afaririk izan. Nafarroan agian inbertsioak eginen dituela-eta gurekin harremanetan ari den enpresa bateko ordezkariari hamaiketako bat eskaini zaie.

Menu estandar hau dastatu ohi da: barazkiak, lekaleak, arroza edo entsalada lehenengo, eta oilaskoa, haragi-bolak, haragia oro har, arraina noizbehinka, bigarren. Azkenburuko, fruta edo esnekia. Ogia, eta kafea edo infusioa.

Kasu guztietan laneko gaiak jorratu dira bazkarietan, Nafarroako interes orokorra helburu. Inoiz ez dira sei lagun baino gehiago izan bazkarietan. COVID araudia betetzen da, bai eta COVID prebentzio neurriak ere, noski, hala nola pertsonen arteko distantzia, garbitasuna edo higie-nea.

2020rako Aurrekontuko "Protokoloko eta ordezkatzeko-lanetako gastuak" izeneko 060004 06210 2261 921100 partida orokorrean aurreikus-ten da kontzeptu hau, beste batzuekin batera.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Par-lamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betez.

Iruñean, 2021eko martxoaren 1ean

Lehendakaritzako, Berdintasuneko, Funtzio Publikoko eta Barneko kontseilaria: Javier Remí- rez Apesteguía

## Galdera, sozietateen gaineko zergan zerga-oinarri negatiboen aplikazioa galtzeari buruzkoa.

### FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Adolfo Araiz Flamarique jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, sozietateen gaineko zergan zerga-oinarri negatiboen aplikazioa galtzeari buruzkoa. Galdera 2020ko abenduaren 22ko 146. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2021eko martxoaren 3an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### ERANTZUNA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Adolfo Araiz Flamarique jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du (2020 PES-00364) —2020ko abenduaren 12ko 364 sarrera-zenbakia du Parlamentuan—, jakin nahi baitu ea, Ekonomia eta Ogasun Departamentuak dakienaren arabera, azken hamabost urteetan sozietateen gaineko zergaren subjektu pasiboren batek aplikatu gabe utzi duen zenbatekoren bat, aipatu zergari buruzko araudian arautzen diren

muga kuantitatiboen edo denborazkoen ondorioz izan litzakeen zerga-oinarri negatiboen konpentsazio gisa, eta, baiezkoan, zenbat subjektu pasibo ukitu dituen eta zein ekitalditan gertatu den inguruabar hori azken hamabost urteetan. Hauxe da Ekonomia eta Ogasuneko kontseilariaren erantzuna:

2018 aurreko zergaldietako sozietateen gaineko zergaren aitortzen, konpentsatzeko dauden oinarri negatiboen zenbatekoak ez daude lauki batean kodetuta. Ondorioz, subjektu pasiboak aitortutako informazioaren ikuspegitik, informazio hori ez dago sistematizaturik ustiapen agregaturako.

Hala ere, informazio hori baliabide informatikoekin lantzen da, aitortpenak banaka harturik, Nafarroako Foru Ogasunaren kudeaketaren barnean. Kudeaketa horrek emandako gaur arteko datuen arabera, honako zenbatespen hau egin da, Nafarroako araudia aplikatzen duten eta zerga-kontsolidazioaren araubidean tributatzen ez duten sozietateen gaineko zergaren subjektu pasiboetarako.

Aurreko 15 urteetatik konpentsatzeko dauden oinarri negatiboak dituen zergaldia	Aitortpenen kopurua
2008	447
2009	415
2010	488
2011	483
2012	469
2013	476
2014	490
2015	580
2016	646
2017	652
2018	715

Ez da egiaztatu ea subjektu pasiboak geroko zergaldietan, behin 15 urte igarotakoan oinarri negatiboak konpentsatu gabe, oinarri negatibo horiek konpentsatu ahal izateko moduko oinarri positiborik aitortu ote zuen.

2019ko zergaldiari dagokion informazioa berrikusten ari da.

Iruñean, 2021eko martxoaren 3an

Ekonomia eta Ogasuneko kontseilaria: Elma Saiz Delgado

## Galdera, autonomoen PFEZaren tributazioari buruzkoa.

### FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Adolfo Araiz Flamarique jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, autonomoen PFEZaren tributazioari buruzkoa. Galdera 2021eko urtarrilaren 18ko 4. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2021eko martxoaren 9an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### ERANTZUNA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Adolfo Araiz Flamarique jaunak 10-20/PES-00371 galdera idatzia aurkeztu du —2021eko urtarrilaren 11ko 146 irteera-zenba-

kia du Parlamentuan— jakin nahi baitu zein izan den autonomoen batez besteko tasa efektiboa PFEZn, 2015 eta 2019 arteko ekitaldietan. Hauxe da Ekonomia eta Ogasuneko kontseilariaren erantzuna:

Martxoaren 9an 10-20/PEI-1060 informazio-eskariari erantzun zaio, eta oraingoan aurkeztu den galderaren berdin-berdina zen.

Horregatik, 10-20/PEI-1060 informazio-eskariaren erantzunean esandakoari eusten diogu.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betez.

Iruñean, 2021eko martxoaren 9an

Ekonomia eta Ogasuneko kontseilaria: Elma Saiz Delgado

## Galdera, Refenaren instalazioak erabiltzeagatik ordaindu ez izanari buruzkoa.

### FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Bakartxo Ruiz Jaso andreak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Refenaren instalazioak erabiltzeagatik ordaindu ez izanari buruzkoa. Galdera 2021eko urtarrilaren 29ko 10. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2021eko martxoaren 17an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### ERANTZUNA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Bakartxo Ruiz Jaso andreak idatziz erantzuteko galdera egin du (10-21-PES-00039), jakin nahi baitu zergatik Nafarroako Gobernuak ez dion ordaindu Refenaren jabeari instalazio horiek erabiltzeagatik. Hauxe da Nafarroako Gobernuak Osasuneko kontseilariak horren gainean informatu beharrekoa:

Alokairuaren, prezioaren eta halabeharrez emandako zerbitzuen inguruan sortu diren desadostasunetan datza konplexutasuna; hori guztia, jakina, pandemiak sortutako salbuespenezko egoerak baldintzatzen du, eta hain zuzen ere egoera horri aurre egiteko erabili dira instalazioak. Ordaindu gabekoen likidazioa, nolana ere, jada bidean da.

Osasun Departamentuak baliabide hori erabili ahal izateko ahozko akordioa egin zen martxoko larrialdi betean, alarma-egoeraren legezko figuraren babesean, herritarrei PCR proba masiboak egiteko zirkuitu oso bat muntatzeko premia larria zegoelako. Refenaren errekurtsioaren baldintzak zuzenean lotuta daude aipatu konplexutasunarekin, elementu materialen alderdi guztietan eta instalazioen egokitzapenean. Azoka-esparrua erabiltzen hasi zenean ezin izan ziren zehaztasunez ezarri gorabehera horiek, berehala jarri behar zelako martxan herritarrei laginak hartzeko eta kontaktuak arakatzeko sistema. Egoera urgentziazkoa zen eta, alderdientzat, lehentasuna osasun publikoa zen. Fakturretan zehatz-mehatz

txertatzeko elementu materialak eta egokitzapenak eskuragarri jartzeari buruzko ondorengo negoziazioaren ondorioz, hasiera batean atzeratu egin zen faktura horiek onartzeko eta, ondorioz, ordaintzeko prozesua, baina ordainketa ez da inoiz zalantzan egon, eta ordaindu egin da.

Ildo horretatik, Administrazioak behar den likidazioa egin du. Eventos Zunzarren eta Recintos Feriales de Navarra SL enpresei dagoeneko 373.896,31 euro ordaindu zaizkie kontzeptu hauengatik, besteak beste: higiezinaren erabilaren lagapena, higiezinaren gastuak eta hornidura,

altzarien errentamendua, berogailuak hornitu, instalatu eta zerbitzuan jartzea, altzarien alokairua eta konponketak. Gainera, jada onetsita eta ordaintzeko zain dago 474.826,07 euroko zenbatekoa. Diru kopuru hori osorik ordaintzeko izapideak egiten ari dira.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betez.

Iruñean, 2021eko martxoaren 15ean

Osasuneko kontseilaria: Santos Induráin Orduna

## **Galdera, sektore publikoak finantza-erakundeei komisioak ordaintzeari buruzkoa.**

### *FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Maiorga Ramírez Erro jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, sektore publikoak finantza-erakundeei komisioak ordaintzeari buruzkoa. Galdera 2021eko urtarrilaren 29ko 10. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2021eko martxoaren 2an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **Ekonomia eta Ogasuneko kontseilariaren erantzuna**

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Maiorga Ramírez Erro jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du (10-21/PES-00042), Parlamentuko erregistroan 2021eko urtarrilaren 26ko 663 irteera-zenbakia duena. Hona Ekonomia eta Ogasuneko kontseilariak horri buruz ematen dion informazioa:

“I. eranskina” izeneko Excel formatuko dokumentua erantsi da. Bertan ageri dira Ekonomia eta Ogasun Departamentuak ordaindutako komisioak, finantza-entitatearen, kontzeptuaren eta urtearen arabera xehakaturata.

Era berean Excel formatuan, “II. eranskina” izeneko dokumentuan CPENek igorritako informazioa eransten da. Bertan finantza-entitatearen eta urtearen arabera xehakatzen dira Nafarroako Gobernuaren sozietate publikoetako bakoitzak

kontu korranteak mantentzeagatik, zerbitzuengatik eta kudeaketengatik ordaindutako komisioak.

Horri dagokionez, honako iruzkin hauek nabarmentzen dira:

- Nasuvinsak bidalketen kobrantzei lotutako gastua jarri du, jarduera hori garrantzitsua baita sozietate horretan.

- Nicdok, berriz, txarteldegietan kreditu-txartelarekin, batez ere Visa txartelarekin, egin diren salmentei lotutako gastuak jaso ditu.

- Nicdok, CAIXABANKi ordaindutako diru kopuruetan, txarteldegietan kreditu-txartelarekin, batez ere Visa txartelarekin, egin diren salmentei lotutako gastuak jaso ditu. Gastu horiek sozietateak jasaten ditu, berak egiten baitu kobrantza, baina gero Fundazioari edo ikuskizunaren sustatzaileari jasanarazten dizkio. Esan daiteke kanpoko sustatzaileek kudeatzen dituztela ikuskizun ia guztiak. Sozietatearen beraren gastua hutsala litzateke.

- GANek bere ibilgailu flotari lotutako teletac-en mantentzea ere sartu du.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betez.

Iruñean, 2021eko martxoaren 2an

Ekonomia eta Ogasuneko kontseilaria: Elma Saiz Delgado



## GALDERA PARLAMENTARIOA:

PES 42

EKONOMIA ETA OGASUN SAILA  
 EKONOMIA ETA POLITIKA EKONOMIKOAREN ZUZENDARITZA NAGUSIA  
 AURREKONTUEN, ONDAREAREN ETA POLITIKA EKONOMIKOAREN ZUZENDARITZA NAGUSIA  
 EKONOMIA ETA FINANTZA ZERBITZUA  
 DIRUZAINZA ATALA

Entitatea	KONTZEPTUA	URTEAK				
		2016	2017	2018	2019	2020
Catalunya Bank	Kontuen arteko intsuldaketa	10,00 €				
Caixabank	American Express txartela			12,77 €		
Caixabank	Atzerriko kontu batera agindutako ordainketaren itzulketa					50,00 €
BBVA	Kreditua ez baliatzeagatiko komisioa					30.750,00 €
Abanca	Kreditua ez baliatzeagatiko komisioa					6.833,34 €
	<b>GUZTIRA</b>	10,00 €	- €	12,77 €	- €	37.633,34 €

## FINANTZA POLITIKARAKO ATALA

Entitatea	KONTZEPTUA	URTEAK				
		2016	2017	2018	2019	2020
Espainiako Bankua	Zerbitzuen tarifak eta komisioak	10.725,00 €	9.950,00 €	10.575,00 €	9.950,00 €	8.350,00 €
BBVA	Bonu Jasangarria kokatzeko eta aseguratze komisioa				150.000,00 €	
	<b>GUZTIRA</b>	10.725,00 €	9.950,00 €	10.575,00 €	159.950,00 €	8.350,00 €

CPEN taldeko sozietate publikoek 2016 eta 2020 bitartean finantza-entitatei ordaindutako diru kopuruak, kudeaketa eta zerbitzuengatik eta kontu korranteak mantentzeagatik komisioak direla-eta

Sozietatea	Finantza-entitatea	2016. urtea	2017. urtea	2018. urtea	2019. urtea	2020. urtea
Ciudad Agroalimentaria de Tudela SL (CAT)	CAIXABANK	152.32	75.69	47.48	0.86	
Ciudad Agroalimentaria de Tudela SL (CAT)	RURAL KUTXA	20.00	18.15	20.00	20.00	30.00
Ciudad Agroalimentaria de Tudela SL (CAT)	BANCO POPULAR / BANCO SANTANDER	72.00	72.00	0.55	25.00	
Ciudad Agroalimentaria de Tudela SL (CAT)	BANKINTER	75.00	15.00	19.67		
Ciudad Agroalimentaria de Tudela SL (CAT)	BBVA			21.00		
Centro Europeo de Empresas e Innovación de Navarra SL (CEIN)	CAIXABANK	231.27	62.02	71.50	79.28	84.73
Centro Europeo de Empresas e Innovación de Navarra SL (CEIN)	RURAL KUTXA	58.67	20.00	26.00	32.00	32.10
Centro Navarro de Aprendizaje de Idiomas SA (CNAI)	CAIXABANK	401.51	528.66	300.50	648.28	717.92
Centro Navarro de Aprendizaje de Idiomas SA (CNAI)	RURAL KUTXA	75.37	672.32	844.95	376.61	350.25
Corporación Pública Empresarial de Navarra SL (CPEN)	CAIXABANK	95.87	81.15	57.61	100.53	68.13
Corporación Pública Empresarial de Navarra SL (CPEN)	BANKINTER	30.45	0.00	0.00	0.00	0.00
Corporación Pública Empresarial de Navarra SL (CPEN)	RURAL KUTXA	16.00	26.00	26.00	20.00	35.10
Corporación Pública Empresarial de Navarra SL (CPEN)	BANCO SANTANDER	42.35	42.35	0.00	0.00	0.00
Gestión Ambiental de Navarra SA (GAN)	CAIXABANK	89.22	142.00	1.594.34	2.223.46	1.552.51
Gestión Ambiental de Navarra SA (GAN)	RURAL KUTXA	36.00	16.00	26.00	31.40	40.52
Instituto Navarro de Tecnologías e Infraestructuras Agroalimentarias SA (INTIA)	RURAL KUTXA	1.490.75	1.946.28	1.387.18	1.856.59	1.215.33
Instituto Navarro de Tecnologías e Infraestructuras Agroalimentarias SA (INTIA)	CAIXABANK	474.33	315.02	258.20	265.87	217.62
Instituto Navarro de Tecnologías e Infraestructuras Agroalimentarias SA (INTIA)	BANKINTER	174.24	174.24	149.64	152.18	0.00
Instituto Navarro de Tecnologías e Infraestructuras Agroalimentarias SA (INTIA)	SABADELL	45.00	111.00	130.00	100.00	0.00
Instituto Navarro de Tecnologías e Infraestructuras Agroalimentarias SA (INTIA)	BANCO SANTANDER	86.66	40.33	0.00	0.00	0.00
Instituto Navarro de Tecnologías e Infraestructuras Agroalimentarias SA (INTIA)	CAJA MAR	0.00	15.00	15.00	15.00	0.00
Instituto Navarro de Tecnologías e Infraestructuras Agroalimentarias SA (INTIA)	IBERCAJA	12.18	0.00	0.00	0.00	0.00
Navarra de Servicios y Tecnologías SA (NASERTIC)	CAIXABANK	9.45	27.31	607.00	52.78	1.51
Navarra de Servicios y Tecnologías SA (NASERTIC)	RURAL KUTXA	51.70	247.84	131.35	27.42	86.80
Navarra de Servicios y Tecnologías SA (NASERTIC)	BANCO SANTANDER	17.10				
Navarra de Suelo y Vivienda SA (NASUVINSA)	CAIXABANK	6.124.74	5.773.31	6.643.60	8.407.92	12.441.43
Navarra de Suelo y Vivienda SA (NASUVINSA)	RURAL KUTXA	20.00	20.00	20.00	20.00	27.04

Sozietatea	Finantza-entitatea	2016. urtea	2017. urtea	2018. urtea	2019. urtea	2020. urtea
Navarra de Suelo y Vivienda SA (NASUVINSA)	BBVA	0.00	0.50	18.15	148.71	6.00
Navarra de Infraestructuras de Cultura, Deporte y Ocio SL (NICDO)	CAIXABANK	16.223.86	17.705.77	24.479.19	30.671.96	16.785.65
Navarra de Infraestructuras de Cultura, Deporte y Ocio SL (NICDO)	EUSKADIKO KUTXA	19.00			12.00	54.00
Navarra de Infraestructuras de Cultura, Deporte y Ocio SL (NICDO)	RURAL KUTXA	28.30	3.60	3.30	10.00	10.00
Navarra de Infraestructuras de Cultura, Deporte y Ocio SL (NICDO)	BANCO SANTANDER	72.48	29.16	34.02	79.78	4.83
Navarra de Infraestructuras de Cultura, Deporte y Ocio SL (NICDO)	BANKINTER	7.50				
Navarra de Infraestructuras Locales SA (NILSA)	CAIXABANK	5.594.63	3.356.40	147.06	60.13	170.02
Navarra de Infraestructuras Locales SA (NILSA)	BANKIA	105.01				
Navarra de Infraestructuras Locales SA (NILSA)	BANKINTER	965.80	310.29	15.00	30.00	39.20
Navarra de Infraestructuras Locales SA (NILSA)	BANCO SANTANDER	0.90				312.76
Navarra de Infraestructuras Locales SA (NILSA)	KUTXA	35.16				
Potasas de Subiza SA (POSUSA)	CAIXABANK	51.00	90.35	108.75	98.15	95.55
Salinas de Navarra SA (SALINAS)	BANKINTER	1.025.20	2.991.95	1.910.31	2.104.41	1.256.95
Salinas de Navarra SA (SALINAS)	CAIXABANK	252.57	446.31	432.28	1.273.02	960.42
Salinas de Navarra SA (SALINAS)	BANCO SANTANDER	39.95	37.50	36.10	0.00	0.00
Sociedad de Desarrollo de Navarra SL (SODENA)	BANCO POPULAR	29.02	35.97	47.70		
Sociedad de Desarrollo de Navarra SL (SODENA)	BANCO SABADELL	66.55	144.40	130.00	150.00	50.00
Sociedad de Desarrollo de Navarra SL (SODENA)	BANCO SANTANDER	52.55	2.00	44.75	37.60	40.43
Sociedad de Desarrollo de Navarra SL (SODENA)	BANKINTER	43.38	15.13	15.00	15.00	11.25
Sociedad de Desarrollo de Navarra SL (SODENA)	BBVA	32.23	54.57	33.35	49.80	51.67
Sociedad de Desarrollo de Navarra SL (SODENA)	EUSKADIKO KUTXA	120.30	132.00	150.30	102.00	159.30
Sociedad de Desarrollo de Navarra SL (SODENA)	RURAL KUTXA	26.74	58.91	20.50	10.00	59.08
Sociedad de Desarrollo de Navarra SL (SODENA)	KUTXABANK	40.00	21.78	15.00	55.00	32.26
Sociedad de Desarrollo de Navarra SL (SODENA)	CAIXABANK	594.37	519.85	472.22	839.64	213.40
Sociedad de Desarrollo de Navarra SL (SODENA)	TARGOBANK					36.30
Start Up Capital Navarra SA (START UP)	CAIXABANK	110.41	139.55	134.69	102.85	108.90
Start Up Capital Navarra SA (START UP)	EUSKADIKO KUTXA	53.00	96.00	128.30	132.30	132.30
Start Up Capital Navarra SA (START UP)	RURAL KUTXA	59.61	59.57	74.00	74.00	82.52

Sozietatea	Finantza-entitatea	2016. urtea	2017. urtea	2018. urtea	2019. urtea	2020. urtea
Trabajos Catastrales SA (TRACASA)	BANESTO	11.63				
Trabajos Catastrales SA (TRACASA)	BBVA	239.35	19.39	226.10	3.18	-15.00
Trabajos Catastrales SA (TRACASA)	CAIXABANK	710.82	679.12	888.62	728.91	551.93
Trabajos Catastrales SA (TRACASA)	KUTXABANK	12.00	87.12	72.60		
Trabajos Catastrales SA (TRACASA)	RURAL KUTXA	379.60	370.43	298.27	294.19	327.31
Trabajos Catastrales SA (TRACASA)	BANCO SANTANDER	640.68	569.22	523.75	498.82	513.93
Tracasa Instrumental SL (TRACASA I)	BBVA			330,31		46.00
Tracasa Instrumental SL (TRACASA I)	CAIXABANK	30.00	1.159.76	756.11	690.85	444.88
Tracasa Instrumental SL (TRACASA I)	RURAL KUTXA		99.40	62.40	71.30	135.09

**Lehendakaritzako, Berdintasuneko,  
Funtzio Publikoko eta Barneko  
kontseilariaren erantzuna**

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Maiorga Ramírez Erro jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du (PES-00042), honako informazio hau eskatzeko Nafarroako Gobernuari:

Sektore publikoak finantza-erakundeei komisiok ordaintzeari dagokionez, hauxe jakin nahi dut:

Lehena: Nafarroako Gobernuak azken bost urteotan finantza-erakundeei ordaindutako zenbateko osoa, urtez urte, kudeaketa-, zerbitzu- eta kontu korrontek mantentzeagatiko komisiok direla-eta.

Bigarrena: Zenbateko hori departamentuen arabera xehakatzea eskatzen da, adierazita lehen aipaturiko kontzeptuengatik zenbat diru jaso duen banku-entitate bakoitzak azken bost urteotan, urtez urte.

Lehendakaritzako, Berdintasuneko, Funtzio Publikoko eta Barneko Departamentuak 2016tik 2020ra bitarteko zenbateko hauek ematen ditu xehakatur:

• Argitalpen Fondoaren zenbatekoa, guztira (Argitalpen Atala): 1.619,82 €

2016320,60 €  
2017318,22 €  
2018326,32 €  
2019356,65 €  
2020298,03 €

• Nafarroako Gazteriaren Institutuaren zenbatekoa, guztira: 1.161,84 €

20160,00 €

201754,60 €

2018450,31 €

2019470,53 €

2020186,40 €

• Foruzaingoaren zenbatekoa, guztira: 100 €

201620 €

201720 €

201820 €

201920 €

202020 €

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betez.

Iruñean, 2021eko martxoaren 2an

Lehendakaritzako, Berdintasuneko, Funtzio Publikoko eta Barneko kontseilaria: Javier Ramírez Apesteguía

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioko foru parlamentari Maiorga Ramírez Erro jaunak 10-21-PES-00042 idatzizko galdera egin du. Hona hemen Hezkuntzako kontseilariak horri buruz ematen dion informazioa:

Beheko taulan ageri dira 2021eko martxoaren 12an Caixabank finantza-entitateak igorritako datu partzialak. Informazioa osatu egingen da Caixabankek eskatu zaizkion gainerako datuak igortzen dituzenean.

Iruñean, 2021eko martxoaren 15ean

Hezkuntzako kontseilaria: Carlos Gimeno Gurpegi

URTEA	KONTUAREN IBAN KODEA	KONTZEPTUA	DATA	ZENBATEKOA
2016	ES69 2100 3693 2122 0033 1212	Zorpekoen erreklamazioa kudeatzea STD.	2016/01/15	35.00
	ES86 2100 3693 2022 0037 5284	Zorpekoen erreklamazioa kudeatzea STD.	2016/02/06	30.00
	ES40 2100 3693 2122 0033 2801	Zorpekoen erreklamazioa kudeatzea STD.	2016/04/05	20.00
2017	ES41 2100 5204 0722 0002 0657	Zorpekoen erreklamazioa kudeatzea STD.	2017/01/10	35.00
	ES65 2100 3693 2922 0024 1652	Zorpekoen erreklamazioa kudeatzea STD.	2017/04/14	35,00
2018	ES22 2100 3693 2622 0014 6349	Sartutako eskudirua zenbatzea MBK	2018/03/19	7.26
	ES90 2100 3693 2622 0033 0201	Sartutako eskudirua zenbatzea	2018/06/14	0,75
	ES45 2100 8988 8902 0001 5712	Intsuldaketak (PAG)	2018/11/02	2.40
	ES45 2100 8988 8902 0001 5712	Intsuldaketak (PAG)	2018/12/07	1.60
2019	ES43 2100 3693 2322 0028 6283	Standard aurreordainketa-txartela (alta zentralizatua)	2019/08/28	7.00

## **Galdera, Next Generation suspertze-programa europarraren funtsak atzemateko proiektuei buruzkoa.**

### **FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA**

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Adolfo Araiz Flamarique jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Next Generation suspertze-programa europarraren funtsak atzemateko proiektuei buruzkoa. Galdera 2021eko otsailaren 5eko 14. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2021eko otsailaren 26an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **ERANTZUNA**

EH Bildu talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Adolfo Araiz Flamarique jaunak galdera egin du (10-21/PES-0047) Next Generation proiektuei buruz. Hona Nafarroako Gobernuak lehendakariak horretaz ematen dion informazioa:

Nafarroako lehendakariak, María Chivite Navascués, hilabeteak daramatza Espainiako Gobernuarekin bilerak egiten, Europako Next Generation programaren esparruan Espainiara iritsiko diren funtsak eskuratzeko aurkeztu ahal izateko asmotan Nafarroan lantzen ari diren ideia eta proiektuen inguruan. Jakina denez, dagoeneko iragarri da 148 milioi iritsiko direla React EU laguntzaren esparruan, eta oraindik ez dira hasi Europako Suspertze eta Erresilientzia Mekanismoaren barneko funtsak eskatzeko deialdi edo egintza administratibo ofizialak. Ministerio batzuek eskatu dute interesa adierazteko manifestuak (MDI) igor daitezela, eta jada dokumentazioa igortzen ari zaie.

Nolanahi ere, ahalik eta zehaztasun handienarekin landu nahi izan dira proiektuak, EBk ezarritako eta Espainiako Gobernuak —funtsak zuzenean jasoko dituenak— antolatu beharreko ardatzen arabera, eta horretarako jarri da martxan elkarrizketa hori, deialdiak abiarazten diren unean proiektuak prest egon daitezen eta ongi bideratuta, funtsen filosofiari eta formatuari dagokienez.

Aipatu bileran heldu zitzaizkien proiektuen artean hauek dira nabarmenenak: Berrikuntza Digitaleko Poloa, Ebro Food Valley proiektua, eta automotzioaren arloan battery pack-en proiektua.

Hainbat bilera egin dira beste ministerio batzuekin, hala nola Ekonomiako, Trantsizio Ekologikoko edo Kultura eta Kiroleko ministerioekin, eta gehiago egingen dira hurrengo egunetan, jada eza-

gunak diren hiru ardatz estrategikoetan (digitalizazioa, itun berdea eta inklusioa) kokatuta dauden proiektuen eta ideien berri ematen joateko.

Hala, etxebizitza jasangarriak, energia berriztagarriak, Historia Digital Bakarra, Administrazioaren digitalizazioa, Nafarroako Ubidea eta abarrekok xede dituzten proposamenak jakinarazi zaizkio Espainiako Gobernuari.

Jakina denez, ekimen pribatua ere lanean ari da elkarrizketa horietan, eta Nafarroako Gobernuak, lankidetzaren beharraz jabeturik, eta Next Generation programak —zeinak, bestalde, apustu egin baitu erakunde publiko eta pribatuen arteko lankidetzaren alde— ekarriko duen inbertsio estrategiko eta eraldatzailearen aldeko konpromisoari eutsiz, ekimen pribatua babesten du eta komunikaziorako bidea errazten dio bai Espainiako Gobernuarekin bai Nafarroako Gobernuarekin berarekin ere. Hain zuzen ere Nafarroako Gobernuan jada Next Generation bulegoa sortu da berriaz funts horren kontabilitate-kudeaketarako.

Espainiako Gobernuak gure elkarrizketa-eskaerei erantzuten ari zaie eta modu proaktibo eta eraikitzailean ari gara elkarlanean, gure herriak proiektu sendoak izan ditzan, Europak proposatzen duen eta Nafarroa lehendik ere garatzen ari den eredu sozial eta ekonomikoan aurrera egiteko egokiak. Ongi kokatuta gaude, zeren eta bai Nafarroako Gobernuak bai enpresa askok aurretik bidea egin baikenuen Europako esparruarekin lerrokatuta dauden proiektu eta proposamenetan.

Lantzen ari garen proiektuak dokumentu biziak dira, eta haien alderdi guztiak zehaztuko dira administrazio-prozedura ofizial bat dagoen unean. Nolanahi ere, Europar Batasunak berak funtsen inguruan onetsi duen Erregelamenduari lotutako prozesua izanen da. Beraz, aurrera pauso orok arauzko definizioari eta zehaztapen administratiiboari lotuta egon behar du.

Horrez gain, Nafarroako Gobernuak Next funtsen kudeaketa bizkortzeko neurriak lantzen ari da, eta auzo propio batean antolatuko ditu neurri horiek.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betez.

Iruñean, 2021eko otsailaren 26an.

Nafarroako lehendakaria: María Chivite Navascués

## **Galdera, LOMLOEn 591. kidegoan dauden Lanbide Heziketako irakasle teknikoei emanen zaien tratamenduari buruzkoa.**

### **FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA**

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Bakartxo Ruiz Jaso andreak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, LOMLOEn 591. kidegoan dauden Lanbide Heziketako irakasle teknikoei emanen zaien tratamenduari buruzkoa. Galdera 2021eko otsailaren 5eko 14. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2021eko martxoaren 8an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **ERANTZUNA**

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioari atxikitako Bakartxo Ruiz Jaso andreak eginitako 10-21/00049 zenbakiko galdera idatzia dela eta, Hezkuntzako kontseilariak honako honen berri ematen du:

Lehenik, EH Bildu talde parlamentarioaren galderan baieztatzen da ezen, LOMLOEk ezartzen duenaren arabera, irakasle tekniko espezialistek irakasle espezialista izatera iragan eta 591. kidegoa utziko dutela.

Hori dela eta, komeni da Lanbide Heziketako Irakasle Teknikoen Kidegoko funtzionarioei buruz argibide batzuk ematea, zalantzarik izan ez dadin.

LOMLOEren 11. xedapen gehigarriak ezartzen du Bigarren Hezkuntzako Irakasleen Kidegoan (590) sartuko direla orain Lanbide Heziketako Irakasle Teknikoen Kidegoan dauden lanbide heziketako espezialitateak, azken kidego hori iraungitzea baita.

Xedapen berak jarraian dioenez, Gobernuak, hezkuntza administrazioekin ados jarrita, 590. kidegoan sartzeko prozedura ezarriko du, bai eta legeak indarra hartzen duen egunean gradudun titulua edo funtzio publikoan aritu ahal izateko beste titulu baliokideren bat duten LHko irakasle teknikoak sartzekoa ere, zehazten diren baldintzetan.

Adierazten du, era berean, LHko Irakasle Teknikoen Kidegoko karrerako funtzionarioen batek ez badauka goian aipatutako titulazioa eta, beraz, ezin bada sartu Bigarren Hezkuntzako Kidegoan, iraungitzea den Lanbide Heziketako Irakasle Teknikoen Kidegoan geldituko dela.

Ondorioz, xedapen gehigarri horren arabera, itxaron egin behar da harik eta Gobernuak eta hezkuntza administrazioek prozedura ezarri eta, horrenbestez, zehaztu arte egungo 591. kidegoko zein irakasle sartuko diren Bigarren Hezkuntzako Irakasleen Kidegoan eta zein geldituko diren iraungitzea den LHko Irakasle Teknikoen Kidegoan.

Baina 591. kidegoko funtzionarioak ez dira inola ere iraganen irakasle espezialista izatera EH Bilduk bere galderan itxuraz adierazten duen bezala.

Bigarrenik, lanbide heziketako irakaskuntzak emateko irakasleak kontratatzeari dagokionez, LOEren 95. artikulua honako hau ezartzen du:

Lanbide heziketako irakaskuntzak emateko, aurreko artikuluan derrigorrezko bigarren hezkuntzarako eta batxilergorako ezarritako titulazio-baldintza eta prestakuntza-baldintza berak eskatuko dira.

Salbuespen gisa, hezkuntza administrazioek lanbide heziketaren esparruan irakasle espezialista gisa hartu ahalko dituzte, hala behar denean, Lanbide Heziketako teknikariak, Lanbide Heziketako goi mailako teknikariak, Lanbide Heziketako teknikari laguntzaileak edo teknikari espezialistak, bai eta kasuan kasuko lanbide arloari lotutako bestelako tituluak dituztenak ere.

Era berean, lanbide heziketaren esparruan irakasle gisa hartu ahalko dira kasuan kasuko tituluari edo ikastaroari lotutako ekoizpen-sektoreko profesionalak.

Gobernuak erregelamenduz arautuko ditu lan-kontratadun gisa arituko diren irakasle espezialistak irakaskuntzan sartzeko eta jarduteko baldintzak.

Hezkuntzako eta Lanbide Heziketako Ministerioak erregelamenduz ezarriko du zein diren irakasle espezialistek irakaskuntzan jarduteko beraiazko betekizunak eta baldintzak.

Azaldutako araudiaren arabera, LOMLOEk dio Gobernuak eta hezkuntza administrazioek noizbait ezarri beharreko prozedura baten arabera erabakiko dela 591. kidegoko zein funtzionario sartuko diren Bigarren Hezkuntzako Irakasleen Kidegoan eta zein geldituko diren iraungi beharreko LHko Irakasle Teknikoen Kidegoan, eta, era

berean, noizbait erregelamendu bidez arautuko direla profesional espezialistek lanbide heziketako irakaskuntzetan sartzeko eta aritzeko baldintzak.

Ondorioz, LOMLOEren aurreikuspenak gartzen ez diren bitartean, ezin diegu erantzunik eman EH Bildu talde parlamentarioak egindako galderei.

Dena dela, otsailaren 25ean Ministerioak lege maila duen arau-zirriborro bat bidali zien autonomia-erkidegoei, eta hau dio testu horren artikuluko bakarrak:

“Hezkuntza administrazioei ahalmena ematen zaie, Hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoaren 95. artikulua 2., 3. eta 4. apartatuetan aurreikusitako erregelamenduzko garapena burutu arte, karrerako funtzionarioak hauta ditzaten Hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoa aldatzen duen abenduaren 29ko 3/2020 Lege Organikoa indarrean jarri aurreko lan-eskaintza publikoen ondorioz bideratzen ari diren deialdietan, eta, halaber, bitarteko langileak izenda ditzaten Lanbide Heziketako Irakasle Teknikoen Kidegoan”.

Azkenik, galdetu da ea Hezkuntza Departamentuak oposizio-deialdiak egiteko asmorik duen 777/1998 Errege Dekretuan aurreikusten diren lau deialdiak osatu ez diren LHko Irakasle Teknikoen Kidegoko espezialitateetan. Bada, Hezkuntzako eta Lanbide Heziketako Ministerioak autonomia-erkidegoei jakinarazi dienez, behin LOMLOE onetsita, bertan 591. kidegoko espezialitateak 590. kidegora aldatu direnez eta graduon titulua eskatzen denez kidego horretan sartzeko, jada ezin da aplikatzen jarraitu talde parlamentario horrek aipatu duen errege dekretua.

Hezkuntza Departamentuak eta Nafarroako Gobernuak, beraz, LOEren garapenean Hezkuntzako eta Lanbide Heziketako Ministerioak ezartzen dituen neurriak aplikatuko dituzte. Neurri horiek unibertsitateaz kanpoko irakasleen Mahai Sektorialari, Ekonomia eta Ogasuneko Departamentuari eta Lehendakartzako, Funtzio Publikoko, Barneko eta Justiziako Departamentuari jakinaraziko zaizkie, izan dezaketen eragin ekonomikoarengatik.

Iruñean, 2021eko martxoaren 8an

Hezkuntzako kontseilaria: Carlos Gimeno Gurpegui



## **Galdera, “Asimetria hibridoak” arautzen dituzten zuzentzarauen transposizioari buruzkoa.**

### **FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA**

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Adolfo Araiz Flamarique jaunak egindako galderen erantzuna, Foru Diputazioak emana, “Asimetria hibridoak” arautzen dituzten zuzentzarauen transposizioari buruzkoa. Galdera 2021eko otsailaren 5eko 14. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2021eko otsailaren 26an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **ERANTZUNA**

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Adolfo Araiz Flamarique jaunak 10-21/PES-00051 galdera idatzia aurkeztu du —2021eko urtarrilaren 26ko 897 irteera-zenbakia du Parlamentuan—. Hona Ekonomia eta Ogasuneko kontseilariak horri buruz ematen dion informazioa:

Zure galderen hitzaurrean adierazten duzun bezala, urtarrilaren 20ko eta 21eko aldizkari ofizialetan argitara eman dira, hurrenez hurren, urtarrilaren 19ko 2/2021 Foru Dekretu Arauemailea (Bizkaia) eta urtarrilaren 19ko 1/2021 Foru Dekretu Arauemailea (Gipuzkoa), zeinak aplikatuko baitira 2020ko urtarrilaren 1etik aurrera hasi eta 2021eko urtarrilaren 21ean amaitu ez diren zergaldietan. Aipatu dekretuen bidez lurralde historiko horiek bakoitzaren araudi fiskala egokitu egin dute Kontseiluaren 2017ko maiatzaren 29ko 2017/952 (EB) Zuzentzauraua (ATAD 2 Zuzentzauraua). Izan ere, horren bidez 2016/1164 (EB) Zuzentzauraua aldatzen da, "asimetria hibrido" deitutakoei dagokienez (horietan herrialde edo lurralde batzuetan kalifikazio juridiko ezberdinak egoteak ekar dezake zergapetze ezaren edo ez-tributazio bikoitzaren kasuak gertatzea).

Asimetria hibridoaren aurkako araudiari jarraikiz Sozietateen gaineko Zergaren edo establezimendu iraunkorra duten ez-egoiliarren errentaren gai-

neko zergaren zergadunek ezin dute gastuen kenkaririk egin edo diru-sarrerak kontuan hartu behar dituzte entitate lotetsiekiko eragiketetan, Europako arauak biltzen dituzten inguruabarretan sartzen direnean. Europako Batzordeak komunikatu batean adierazi duenez, Europako zuzentzarauen helburua da "bermatzea enpresa multinazionalen ezinezkoa dutela modu artifizialean murriztea sozietateen gaineko zerga ordaintzeko duten betebeharra, estatu kideetako sistema fiskalen eta Batasunetik kanpoko herrialdeetako ardeko desberdintasunak baliatuz". Bruselak gogorarazten duenez, horiek dira "desfase hibrido deitutakoak".

Gauzak horrela, galdera hauek egiten dira:

– Nafarroako Gobernuak arauak onetsi al ditu edo Nafarroako Parlamentuari igorri al dio dagoen foru lege proiektua, Nafarroako sistema fisikaletan jasotze aldera “asimetria hibridoekin” lotutako zuzentzaurau horien edukia?

– Ezezkoan, noiz igorriko du Gobernuak aipatu zuzentzarauen transposizioarako behar den foru lege proiektua?

Galdera horiei erantzuteko haxe adierazi behar dizut: foru lege-dekretu baten bitartez transposizioa egingen da Nafarroako ordenamenduan txertatzeko Kontseiluaren 2017ko maiatzaren 29ko 2017/952 (EB) Zuzentzauraua, asimetria hibridoekin dagokienez 2016/1164 (EB) Zuzentzauraua aldatzen duena. Lege-dekretu hori izapidetzen ari da, 2021eko otsailaren 24ko gobernu bilkuran onets dadin. Onetsi ondoren, foru lege-dekretua Parlamentura igorriko da baliozkotzeko, Nafarroako Foru Eraentza berrezarri eta hobetzeari buruzko abuztuaren 10eko 13/1982 Lege Organikoaren 21 bis.2 artikuluan ezarritakoari jarraituz.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betez.

Iruñean, 2021eko otsailaren 26an

Ekonomia eta Ogasuneko kontseilaria: Ima Saiz Delgado

## **Galdera, kulturako lanbideei buruzko lege proiektu bat bultzatzen duen mozioa betetzeko ekintzei buruzkoa.**

### **FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA**

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betetz, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Maiorga Ramírez Erro jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, kulturako lanbideei buruzko lege proiektu bat bultzatzen duen mozioa betetzeko ekintzei buruzkoa. Galdera 2021eko otsailaren 5eko 14. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2021eko otsailaren 26an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **ERANTZUNA**

EH Bildu talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Maiorga Ramírez Erro jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du (10-21/PES-00052), jakin nahi baitu zer ekintza burutu dituen Nafarroako Gobernuak maiatzaren 21eko Osoko Bilkuran onetsi zen mozioa betetze aldera. Hona Nafarroako Gobernuak Kultura eta Kiroleko kontseilariari ematen dion informazioa:

Kulturako lanbideei buruzko lege proiektu bat bultzatu eta partaidetza-prozesu bat irekitzeari dagokionez, hasi dira atariko lanak hura garatzeko.

Beste ekintza batzuk garatzeari dagokionez:

a) 2020an Vianako Printzea Erakundea – Kultura Zuzendaritza Nagusiaren programa propioak garatu ziren arte eszeniko eta musikaletan, bai eta Baluarte Fundazioaren programazioak ere; ‘Oinak hodeietan’ eta ‘Izan ala ez izan’ ziklo berriak sortu ziren; eta arlo publikoaren eta pribatuaren arteko elkarlanean programa berri batzuk sortu ziren, hala nola ANAIM Club Fest edo KM Zero Fest.

b) Programazio propioak eta programazio berriak barnean hartu zituzten euskarazko obrak, kontzertuak eta ikuskizunak.

c) Koronabirusaren (COVID-19) osasun krisiak eragindako inpaktuari aurre egiteko premiazko

neurriak onesten dituen maiatzaren 20ko 5/2020 Foru Lege Dekretuan jasotako neurriak (arau hori Parlamentuaren ekainaren 4ko Osoko Bilkuran baliozkotu zen).

d) Nafarroan egindako arte garaikideko 14 artelan erostea, guztira 90.000 euro balio dutenak. Proiektu horrek aurrera jarraitu du 2021ean, eta halaxe jaso da Kultura eta Kirol Departamentuaren aurrekontuetako lerro batean.

e) ‘Kultur bonuak’ ezarri nahi dira edukierak egungoak baino handiagoak direnean. Izan ere, ez da komeni neurri hori orain ezartzea, kontuan izanik kulturaguneetan oso ona izaten ari dela ikusentzuleen erantzuna. Nolanahi ere, Departamentuak azkenaldi honetan bere programazioetan tarifa txikien politika orokorra garatu du, mesede egin diena gazteei eta gizarteko kolektibo behartsuetako pertsonari, programa berrietako ikuskizunetan; eta zenbait jarduera doan ere eskaini ditu. Horrez gain, programa eta proiektu berriak sortu dira, SET948 izenekoa, adibidez, Nafarroako kultura herritarrei etxean eskura jartzeko Nafarroako telebista kanalen bitartez. Eskaria sorrarazteko proiektu batek eskaintzen ahal dizkigun aukerak aztertzen ari gara, kulturaren kontsumoa sustatzeko pizgarri bat behar denerako. Proiektu hori 2021ean zehar garatuko da. Konpromiso hori Kultura eta Kirol Departamentuaren aurrekontuetako lerro batean jaso da.

Artista eta profesionalentzako oinarrizko estaldura berezia ezartze aldera, ekainaren 17ko 6/2020 Foru Lege Dekretua onetsi zen, premiazko neurriak onesten dituen koronabirusaren (COVID-19) osasun krisiak eragindako inpaktuari aurre egiteko. Azken xedapenetako seigarrenean aurreikusten du hornidura hori.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikuluan xedatutakoa betetz.

Iruñean, otsailaren 26an

Kultura eta Kiroleko kontseilaria: Rebeca Esnaola Bermejo

## Galdera, Leringo lurzatiak biltzeko prozesuari buruzkoa.

### FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Miguel Bujanda Cirauqui jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Leringo lurzatiak biltzeko prozesuari buruzkoa. Galdera 2021eko otsailaren 5eko 14. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2021eko otsailaren 26an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### ERANTZUNA

Navarra Suma talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Miguel Bujanda Cirauqui jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du Leringo lurzati-berrantolamenduari buruz (PES-00053). Hona hemen Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilariaren erantzuna:

*Duela urtebete baino gehiago salatu genuen lurzatiak biltzearen alde aurreko oinarriak geldiarazita zeudela Leringo udalerrian, Nafarroako ubidearen etorkizuneko eremu ureztagarrietan.*

*Noiz jarraituko duzue Leringo lurzatiak biltzeko prozesuarekin?*

*Noiz ezarriko duzue pertsona bat aipatutako prozesua zuzentzeko?*

Lanak inoiz ez dira egon geldiarazita, INTIA enpresa publikoa aritu baita lanean Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioiko kontseilariaren azaroaren 28ko 470/2013 Foru Agindua eman zenez geroztik (horren bidez onesten da jarduketak hastea Leringo aldean, Nafarroako Ubidearen eremu ureztagarriko XXVI-Ega 2 sektoreko nekazaritza azpiegituretan).

2014ko urtarrilean lurzatiak berrantolatzeke lanei ekin zitzaion, eremuko lurren jabetza ikertuz. Eremuak barnean hartzen zituen ureztaketa tradizionalako lurrak eta udal-mugartearen hegoaldeko lehorreko lurrak (El Tamarigal, La Sarda eta El Sasoko parajeak).

Urte bereko udan, Ureztatzaileen Elkarteko idazkariarekin batera elkarte horretako jabeen zerrenda eguneratua egin zen, jabetzaren ikerketan lortutako informazioa erabiliz. Leringo ureztaketa tradizionalako Ureztatzaileen Elkartean, berariaz egindako bozketan, 2014ko azaroan, Nafarroako Ubidearen eremu ureztagarrian ez sartzeari erabaki zuten.

Ureztaketa tradizionalakoen ezezkoaren ondoren, Leringo Udalak, Lagaza, Cabizgordo, Esparteta, Planilla eta Plana Roldán parajeetako lehorreko lurren jabeek eta Leringo La Sarda kooperatibak sinadurak biltzeko prozesua antolatu zuten aspalditik egiten ari ziren eskaeraren alde: paraje horiek Nafarroako Ubidearen eremu ureztagarrian sartzeari, Nekazaritzako Azpiegiturei buruzko martxoaren 7ko 1/2002 Foru Legean ezarritakoari jarraituz.

2016ko apirilaren 8an, Leringo Udalak eta Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioiko Departamentu berriak informazio batzar batera deitu zuten. Bertan, Landa Garapeneko, Nekazaritzako eta Abeltzaintzako Zuzendaritza Nagusiak azaldu zuten zer aukera zeuden gorago aipatutako lehorreko lurrak ureztalari biltzeko eta horrek zer kostu izanen zuten.

Informazio batzarraren emaitzak ikusita, Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioiko kontseilariak uztailaren 15eko 256/2016 Foru Agindua eman zuten. Horren bidez onetsi zen Nafarroako Ubidearen eremu ureztagarriaren XXVI-Ega 2 sektoreko perimetroa aldatzea, Leringo ureztaketa tradizionalako lurrak kanpoan utziz eta udal-mugarte bereko lehorreko zona bat sartzuz, Lagaza deitua orokorki; eta perimetro berria jarduketak hastea proposatu zen.

Gero espediente bat izapidetu eta onetsi zen (2017ko uztailaren 19an onetsi) "Nafarroako Ubidearen 1. fasea eta haren eremu ureztagarria handitzeko Udalez gaindiko Proiektu Sektoriala (UPS)" aldatzeko, hain zuzen ere Egako adararen trazadura aldatzeko Leringo eta Cárcarko udal-mugarteetan. Leringo udal-mugartean trazadura berriak Lagazako parajea zeharkatu behar zuten.

Halaber, 2017an, era koordinatuan, "Nafarroako Ubidearen 1. fasea handitzea. Eremu osagarriak" eremu ureztagarriko UPSaren aldatzea idatzeko lanak eta haren ingurumen eraginaren ebaluazioa egin ziren, eta, lurzati-berrantolamenduen barruan, XXVI-Ega 2 sektorearen perimetro berriko jabetza ikertzeko eta lurrak sailkatzeko lanak egin ziren; jabeek ongi hartu zituzten, eta urtebetean 80tik gora hektarearen titulartasuna aldatzea lortu zen, erretiroa hartutako jabeak eta nekazariak kontuan hartuta.

Ingurumeneko eta Lurraldearen Antolamenduko zuzendari nagusiak, abenduaren 19ko

998E/2018 Ebazpenaren bidez, Nafarroako Ubidearen 1. fasea handitzeko UPSaren aldaketaren gaineko ingurumen eraginaren adierazpena egin zuen, eremu osagarri zegokiena.

Nafarroako Gobernuaren 2019ko martxoaren 27ko Erabakiaren bidez behin betiko onetsi zen "Nafarroako Ubidearen 1. fasea eta haren eremu ureztagarria handitzea. Eremu osagarriak" UPSaren aldaketaren espedientea.

Aurrera jarraitu da lurzatiak berrantolatze lanetan, aurretiazko oinarriak jendaurrean jarri eta ingurumen ukipenen azterketa eginez.

Sektore horren perimetroaren barnean, lehorreko lurrak ureztaluz bihurtzeko jarduketa aurreikusten da gehienbat, eta hor bi zona daude: bate-tik, udal-mugartearen hegoaldeko lehorreko lurrak, jada 1. fasea handitzean hasieratik zati berriak sartu zirenak (El Tamarigal, La Sarda eta El Saso), eta bestetik, iparraldean, Lagazako eremu ureztagarri osagarria, Lagaza, Cabizgordo, Esparteta, Planilla eta Plana Roldán parajeak biltzen

dituena; eremu hori UPSaren azken aldaketan sartuta dago.

Aurretiazko oinarriak jendaurrean jarri eta alegazioen emaitza gehitu ondoren, oinarriak formatu ofizialean idazteari ekin zitzaion. Lan horretan ari zela, Ega 4 eremuko teknikari gainbegiratzailea bat-batean zendu zen 2020ko azaroaren 2an.

Lanak oso aurreratuta zeudela eta zailtasun teknikoa zutela kontuan izanik, nola jarraitu aztertu zen, baina ez zen erraza izan, zenduaren ezagutze tekniko eta pertsonalak zirela eta. Azkenik, iragan otsailaren 1ean Juana M<sup>a</sup> Ojer Marco teknikaria hasi da lanei jarraipena ematen. Lurzati-berrantolamenduan 25 urtetik gorako esperientzia du eta erabateko bermea eskaintzen du. Ega 4 Cárcar lurzati-berrantolamenduko eremuaren gainbegiratzailea izan da duela gutxi.

Iruñean, 2021eko otsailaren 25ean

Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Kontseilaria: Itziar Gómez López

## **Galdera, babesgabetasuneko edo gizarte-gatazkako egoeran dauden adingabeentzako egoitza-harrerako 40 plazako zerbitzuaren kontratuari buruzkoa.**

### *FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Marta Álvarez Alonso andreak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, babesgabetasuneko edo gizarte-gatazkako egoeran dauden adingabeentzako egoitza-harrerako 40 plazako zerbitzuaren kontratuari buruzkoa. Galdera 2021eko otsailaren 5eko 14. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2021eko otsailaren 26an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **ERANTZUNA**

Navarra Suma talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Marta Álvarez Alonso andreak galdera egin du babesgabetasuneko edo gizarte-gatazkako egoeran dauden adingabeentzako egoitza-harrerako 40 plazako kontratuaren zerbitzuari buruz (10-21/PES-00055). Hona Nafarroako

Gobernuko Eskubide Sozialetako kontseilariak informatzeko duena:

*Zergatik dago kontratu hori aberaste bidegabeko egoeran?*

Kontratua 2020an zehar lizitatzeko prest zegoen, baina aurreikusitako lizitazioa atzeratu behar izan zen, pandemiaren eraginez (administrazio prozeduretako batzuk eten baitziren) eta esku-hartze sozialaren arloko hitzarmenaren negoziatioa ere tarteko.

*Noiztik dago egoera horretan?*

2019ko abenduaren 1etik.

*Noizko aurreikusten da kontratu berriaren esleipena?*

Nafarroako Gobernuak konpromisoa hartu du Nafarroako Ekintza eta Esku-hartze Sozialaren Sektoreko I. Hitzarmen Kolektiboa finantzatzeko. Ildo horretan PAGNAK 2021eko uztailaren 1erako

adjudikatu nahi du familien eta adingabeen arloko kontratuen zati handi bat.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betez.

Iruñean, 2021eko otsailaren 26an.

Eskubide Sozialetako kontseilaria: María Carmen Maeztu Villafranca

---

## **Galdera, zailtasun edo gatazka sozialeko egoeran dauden adingabeentzako egoitza-arretako 15 plazako zerbitzuaren kontratuari buruzkoa.**

### *FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Marta Álvarez Alonso andreak egindako galderen erantzuna, Foru Diputazioak emana, zailtasun edo gatazka sozialeko egoeran dauden adingabeentzako egoitza-arretako 15 plazako zerbitzuaren kontratuari buruzkoa. Galdera 2021eko otsailaren 5eko 14. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2021eko otsailaren 26an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **ERANTZUNA**

Navarra Suma talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Marta Álvarez Alonso andreak galdera egin du zailtasun edo gizarte-gatazkako egoeran dauden adingabeentzako egoitza-arretako 15 plazako zerbitzuaren kontratuari buruz (10-21/PES-00056). Hona Nafarroako Gobernuak Eskubide Sozialetako kontseilariak informatzeko duena:

*Zergatik dago kontratu hori aberaste bidegabeko egoeran?*

Aurreikusita dago Gizain Fundazioak hartuko duela bere gain baliabide hori kudeatzeko mandatua, babesgabetasuneko egoeran dauden adingabeentzako Behaketa eta Harrera Zentroa kudeatzen duen bezala.

*Noiztik dago egoera horretan?*

2015eko apirilaren 16tik.

*Noizko aurreikusten da kontratu berriaren esleipena?*

Aurreikusita dago mandatu gehigarri bat egitea Gizain Fundazioari, gizarte-gatazkan dauden adingabeentzako behaketa zentroaren ardura har dezan 2021eko azken hiruhilekotik aurrera.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betez.

Iruñean, 2021eko otsailaren 26an.

Eskubide Sozialetako kontseilaria: María Carmen Maeztu Villafranca

## Galdera, Tafallako Gizarteratzeko eta Laneratzeko Taldearen zerbitzuaren kontratuari buruzkoa.

### FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Marta Álvarez Alonso andreak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Tafallako Gizarteratzeko eta Laneratzeko Taldearen zerbitzuaren kontratuari buruzkoa. Galdera 2021eko otsailaren 5eko 14. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2021eko martxoaren 5ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### ERANTZUNA

Navarra Suma talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Marta Álvarez Alonso andreak galdera egin du Tafallako Gizarteratzeko eta Laneratzeko Taldearen zerbitzuaren kontratuari buruz (10-21/PES-00057). Hona Nafarroako Gobernuak Eskubide Sozialetako kontseilariak informatzeko duena:

*Zergatik dago kontratu hori aberaste bidegabeko egoeran?*

Egoera hori justifikatuta dago beharrezkoa delako Tafallako Gizarte Zerbitzuen zentroa sortzea Lizarrako eta Tuterako gizarte zerbitzuen zentroek duten kudeaketa eredu berarekin; azken horiek, gaur egun, "Gizarte Zerbitzu Publikoak Kudeatzeko Nafarroako Fundazioa - Gizain Fundazioa"ri ente instrumental gisa egindako mandatu baten bitartez kudeatzen dira, Nafarroako gizarte zerbitzuetako oinarrizko laguntza indartzeko elementu estrategikotzat hartuta.

2018-2021 aldirako Nafarroako Gizarteratze Plan Estrategikoak Foru Administrazioaren ekin tzaren ildoak ezartzen ditu kalteberatasun egoeran dauden pertsonen gizarteratzeko eta laguntza jasotzeko duten eskubidea gauzatzeko. Besteak beste, honako helburu estrategiko hauek ezartzen ditu:

- Oinarrizko laguntza sustatu eta indartzea gizarte zerbitzuen sistemaren ardatz gisa.
- Gizarteratze eta laneratzearen arloan lanerako prozedurak eta metodologiak bateratzea.
- Gizarteratzeko babesa egituratu eta integratzea, gizarte zerbitzuek gizarteratze horretan dituzten eginkizunak zedarritzea.

Bide horretatik, hiru jarduketa ardatz planteatzen dira: oinarrizko gizarte zerbitzuak finantzatzeko sistema aldatzea; sistemaren laguntza eta gobernantza eredu egituratu eta jardunaren xedea zehaztea; eta historia sozial bakarrean oinarritutako informazio sistema integratua ezartzea.

Hala, bada, oinarrizko laguntzaren eredu indartu horren azpian lidergo sistema sendo bat dago, lidergo estrategikoa eta lidergo operatiboa bereizten dituen.

Lehenbizikoa, sistema osoaren helburuak eta jarduketa ildo nagusiak finkatu behar duena, Gobernuari dagokio; lidergo operatiboa, berriz, helburu estrategikoei begira eguneroko jardunbidea eta antolaketa ezarri behar dituen, barrutiz barruti ezartzen da, eta horregatik gizarte zerbitzuen zentrotan legokieke.

Gaur egun gizarte zerbitzuen bi zentro ditugu soilik (Tuterakoa eta Lizarrakoa), baina GLT, HNAT eta GIBLIT taldeak gizarte zerbitzuen barruti guztietan ezarrita daude. Guztiak kanpoko hornitzaileek kudeatzen dituzte; horiek zenbait unitate organikori atxikita daude (Babes Sozialaren eta Garapenerako Lankidetzaren Zuzendaritza Nagusia, Pertsonen Autonomiarako eta Garapenerako Nafarroako Agentzia eta Berdintasunerako Institutua), eta beren kasa funtzionatzen dute, ez baitute koordinazio bateraturik laguntza ereduak lerrotzeko, sinergiak sortzeko eta laguntza integratuen prestazioa errazteko. Gainera, kanpoko hornitzaileak direnez, ezin dute lidergo eginkizunetan jardun udal titulatasuneko beste zerbitzu publiko batzuen gain.

2019-2023 aldirako Nafarroako Gizarte Zerbitzuen Planak sakonago ekiten dio Nafarroako gizarte zerbitzuen sistemaren primarizazioari, oinarrizko laguntzaren berrantolaketa eta sendotzea direla medio. Horren harira, gizarte zerbitzuen zentroek laguntza eredu berriaren garapenerako duten garrantzia azpimarratzen du:

"Egun badiren edo aurreikusita dauden barruti-ko gizarte zerbitzuen zentroek jada aurrera pauso bat begiztatzea ahalbidetzen dute integrazio bertikal horretan, pertsonen banan-banan eta kalteari aurrea hartuz laguntzeko ahalmena indartzen duten heinean. Zenbaitetan saihestu ere egiten dute pertsona bigarren mailako zerbitzu batera

eramanen lukeen egoera –adibidez, mendekotasuna, babesgabetasuna edo bazterkeria– sortzeko prozesua, bigarren mailako zerbitzu hori ez baita beti pertsonaren jatorrizko ingurune geografikoan kokatua eta pertsonak nahiago duena.

Lizarrako eta Tuterako barrutietako gizarte zerbitzuen zentroak Gizarte Zerbitzu Publikoak Kudeatzeko Fundazio Publikoan sartzeak eta Nafarroako Toki Administrazioaren Erreformari buruzko Legea onetsitakoan eskualdeak sortzeak berekin ekarriko dituzte gizarte zerbitzuen zentron eginkizunen harmonizazioa eta inklusioa eskualde bakoitzean. Oinarrizko gizarte zerbitzuek laguntza teknikoa jasotzen dute gizarte zerbitzuen zentroetatik. Horrela, erabakitze ahalmen handiagoa dute, pertsona gutxiago deribatzen dira bigarren mailako laguntzara, pertsonak berez

dituen babesak eta haren hurbileko lurraldean dauden beste batzuk baliatzen dira, eta kostuetan aurrezten da.”

*Noiztik dago egoera horretan?*

2019ko maiatzaren 31tik.

*Noizko aurreikusten da kontratu berriaren esleipena?*

Jada adierazi denez, ez da lizitazio berririk egingen.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betez.

Iruñean, 2021eko martxoaren 4an.

Eskubide Sozialetako kontseilaria: María Carmen Maeztu Villafranca

## **Galdera, Iruñeko/Tuterako Familia Elkartzeko Guneko zerbitzuaren kontratuari buruzkoa.**

### *FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Marta Álvarez Alonso andreak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Iruñeko/Tuterako Familia Elkartzeko Guneko zerbitzuaren kontratuari buruzkoa. Galdera 2021eko otsailaren 5eko 14. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2021eko otsailaren 26an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **ERANTZUNA**

Navarra Suma talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Marta Álvarez Alonso andreak galdera egin du Iruñeko/Tuterako Familia Elkartzeko Guneko zerbitzuaren kontratuari buruz (10-21/PES-00058). Hona Nafarroako Gobernuo Eskubide Sozialetako kontseilariak informatzeko duena:

*Zergatik dago kontratu hori aberaste bidegabeko egoeran?*

Kontratua 2020an zehar lizitatzeko prest zegoen, baina aurreikusitako lizitazioa atzeratu behar izan zen, pandemiaren eraginez (administrazio prozeduretako batzuk eten baitziren) eta eskuhartze sozialaren arloko hitzarmenaren negoziazioa ere tarteko.

*Noiztik dago egoera horretan?*

2019ko urtarrilaren 1etik.

*Noizko aurreikusten da kontratu berriaren esleipena?*

Nafarroako Gobernuak konpromisoa hartu du Nafarroako Ekintza eta Esku-hartze Sozialaren Sektorereko I. Hitzarmen Kolektiboa finantzatzeko. Ildo horretan PAGNAk 2021eko uztailaren 1erako adjudikatu nahi du familien eta adingabeen arloko kontratuen zati handi bat.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betez.

Iruñean, 2021eko otsailaren 26an

Eskubide Sozialetako kontseilaria: María Carmen Maeztu Villafranca

## **Galdera, Tafallako/Lizarrako Familia Elkartzeko Guneko zerbitzuaren kontratuari buruzkoa.**

### *FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Marta Álvarez Alonso andreak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Tafallako/Lizarrako Familia Elkartzeko Guneko zerbitzuaren kontratuari buruzkoa. Galdera 2021eko otsailaren 5eko 14. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2021eko otsailaren 26an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **ERANTZUNA**

Navarra Suma talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Marta Álvarez Alonso andreak galdera egin du Tafallako/Lizarrako Familia Elkartzeko Guneko zerbitzuaren kontratuari buruz (10-21/PES-00059). Hona Nafarroako Gobernuak Eskubide Sozialetako kontseilariak informatzeko duena:

*Zergatik dago kontratu hori aberaste bidegabeko egoeran?*

Kontratua 2020an zehar lizitzatzeko prest zegoen, baina aurreikusitako lizitazioa atzeratu behar izan zen, pandemiaren eraginez (administrazio prozeduretako batzuk eten baitziren) eta esku-hartze sozialaren arloko hitzarmenaren negoziatuzkoa ere tarteko.

*Noiztik dago egoera horretan?*

2020ko apirilaren 1etik.

*Noizko aurreikusten da kontratu berriaren esleipena?*

Nafarroako Gobernuak konpromisoa hartu du Nafarroako Ekintza eta Esku-hartze Sozialaren Sektoreko I. Hitzarmen Kolektiboa finantzatzeko. Ildo horretan PAGNAK 2021eko uztailaren 1erako adjudikatu nahi du familien eta adingabeen arloko kontratuen zati handi bat.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betez.

Iruñean, 2021eko otsailaren 26an.

Eskubide Sozialetako kontseilaria: María Carmen Maeztu Villafranca

## **Galdera, adopzioaren ondoko familia-laguntzaren zerbitzua emateko eta familia hartzaileei akonpainamendua egiteko zerbitzuaren kontratuari buruzkoa.**

### *FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Marta Álvarez Alonso andreak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, adopzioaren ondoko familia-laguntzaren zerbitzua emateko eta familia hartzaileei akonpainamendua egiteko zerbitzuaren kontratuari buruzkoa. Galdera 2021eko otsailaren 5eko 14. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2021eko otsailaren 26an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **ERANTZUNA**

Navarra Suma talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Marta Álvarez Alonso andreak galdera egin du adopzioaren ondoko familia-laguntzaren zerbitzua emateko eta familia hartzaileei akonpainamendua egiteko zerbitzuaren kontratuari buruz (10-21/PES-00060). Hona Nafarroako Gobernuak Eskubide Sozialetako kontseilariak informatzeko duena:

*Zergatik dago kontratu hori aberaste bidegabeko egoeran?*

Kontratua 2020an zehar lizitzatzeko prest zegoen, baina aurreikusitako lizitazioa atzeratu behar



izan zen, pandemiaren eraginez (administrazio prozeduretako batzuk eten baitziren) eta esku-hartze sozialaren arloko hitzarmenaren negoziazioa ere tarteko.

*Noiztik dago egoera horretan?*

2019ko urriaren 1etik.

*Noizko aurreikusten da kontratu berriaren esleipena?*

Nafarroako Gobernuak konpromisoa hartu du Nafarroako Ekintza eta Esku-hartze Sozialaren

Sektoreko I. Hitzarmen Kolektiboa finantzatzeko. Ildo horretan PAGNAk 2021eko uztailaren 1erako adjudikatu nahi du familien eta adingabeen arloko kontratuen zati handi bat.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betez.

Iruñean, 2021eko otsailaren 26an.

Eskubide Sozialetako kontseilaria: María Carmen Maeztu Villafranca

## **Galdera, Aita Menni eta Benito Menni egoitzen itunari buruzkoa.**

### **FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA**

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Marta Álvarez Alonso andreak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Aita Menni eta Benito Menni egoitzen itunari buruzkoa. Galdera 2021eko otsailaren 5eko 14. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2021eko otsailaren 26an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **ERANTZUNA**

Navarra Suma talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Marta Álvarez Alonso andreak galdera egin du Aita Menni eta Benito Menni egoitzen itunari buruz (10-21/PES-00061). Hona Nafarroako Gobernuak Eskubide Sozialetako Departamentuak informatzeko duena:

*Zergatik dago kontratu hori aberaste bidegabeko egoeran?*

Hasiera batean atzeratu egin zen lan konplexua egin behar zelako Osasun Departamentua-

ren, Pertsonen Autonomiarako eta Garapenerako Nafarroako Agentziaren eta Ahizpa Ospitalarien arteko itun sozialaren baldintza ekonomikoak eta teknikoak ezartzeko.

2020. urtean pandemiak espediente geldiarazi zuen, eta berriz ekin zaio aurtengo urritik aurrera. Ituna adjudikatzeko oinarriak ezarri dira dagoneko.

*Noiztik dago egoera horretan?*

2017ko azaroaren 6tik.

*Noizko aurreikusten da kontratu berriaren esleipena?*

Aurtengo apiril edo maiatzerako aurreikusten da itun soziala sinatzea.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betez.

Iruñean, 2021eko otsailaren 26an

Eskubide Sozialetako kontseilaria: María Carmen Maeztu Villafranca

## Galdera, Familia Orientazioko Zerbitzuaren kontratuari buruzkoa.

### FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Marta Álvarez Alonso andreak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Familia Orientazioko Zerbitzuaren kontratuari buruzkoa. Galdera 2021eko otsailaren 5eko 14. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2021eko otsailaren 26an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### ERANTZUNA

Navarra Suma talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Marta Álvarez Alonso andreak galdera egin du Familia Orientazioko Zerbitzuaren kontratuari buruz (10-21/PES-00062). Hona Nafarroako Gobernuak Eskubide Sozialetako kontseilariak informatzeko duena:

*Zergatik dago kontratu hori aberaste bidegabeko egoeran?*

Kontratua 2020an zehar lizitatzeko prest zegoen, baina aurreikusitako lizitazioa atzeratu behar

izan zen, pandemiaren eraginez (administrazio prozeduretako batzuk eten baitziren) eta esku-hartze sozialaren arloko hitzarmenaren negoziatzea ere tarteko.

*Noiztik dago egoera horretan?*

2020ko urtarrilaren 1etik.

*Noizko aurreikusten da kontratu berriaren esleipena?*

Nafarroako Gobernuak konpromisoa hartu du Nafarroako Ekintza eta Esku-hartze Sozialaren Sektoreko I. Hitzarmen Kolektiboa finantzatzeko. Ildo horretan PAGNAk 2021eko uztailaren 1erako adjudikatu nahi du familien eta adingabeen arloko kontratuen zati handi bat.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betez.

Iruñean, 2021eko otsailaren 26an.

Eskubide Sozialetako kontseilaria: María Carmen Maeztu Villafranca

## Galdera, toki entitateei haur-eskolen eskaintza baimentzeari buruzkoa, 2021-22 ikasturterako unitate kopuruari eta hizkuntza-modalitateari buruzkoa.

### FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Bakartxo Ruiz Jaso andreak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, toki entitateei haur-eskolen eskaintza baimentzeari buruzkoa, 2021-22 ikasturterako unitate kopuruari eta hizkuntza-modalitateari buruzkoa. Galdera 2021eko otsailaren 5eko 14. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2021eko martxoaren 5ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### ERANTZUNA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioari atxikitako Bakartxo Ruiz Jaso andreak eginiko 10-21/00063 zenbakiko galdera idatzia dela eta, Hezkuntzako kontseilariak honako honen berri ematen du:

#### 1. galdera:

Hezkuntzako zuzendari nagusiaren abenduari 17ko 538/2020 Ebazpenak prozedura onetsi du haurrak onartzeko, 2021-2022 ikasturtean, funts publikoak jasotzen dituzten Nafarroako Foru Komunitateko Haur Hezkuntzako lehen zikloko ikastetxeetan. Ebazpen horren arabera, toki entitateek Hezkuntza Departamentura igorri behar dute haur-eskola bakoitzean 2021-2022 ikasturte-

an eskainiko diren unitate kopuruari eta hizkuntza-modalitateari buruzko aurreikuspena, proposamen horren justifikazioarekin batera.

Haur-eskola bakoitzean eskainiko diren unitateen kopuruaren eta hizkuntza modalitatearen aurreikuspen hori jaso ondoren, Hezkuntza Departamentuak aztertu egingen du eskaintza, eta irizpide hauei jarraituko die hura onesteko:

– 2019-2023 bitarteko bizikidetzazko eta berdintasunezko legegintzaldi berritzaile eta aurrerakoirako Programa Akordioan, “hizkuntza-eredu bat baino gehiago barne hartzen duten ikastetxeak” sustatuko direla azaltzen da 3.1 ataleko 32. puntuan.

– Eskolaldi mota, adin-tarteak eta eskaintako gehieneko unitate kopurua gainbegiratzea, haur-eskola sortzeko hitzarmenean jasotakoa bete dezaten.

– Haur-eskola bateko ikasleei hizkuntza-ereduaren jarraitutasuna bermatzea, eskola berean, Haur Hezkuntzako lehen zikloan zehar.

– Haur-eskoletako ikasleen hizkuntza-ereduari jarraipena ematea Eskola Mapako Haur Hezkuntzako eta Lehen Hezkuntzako ikastetxeetan.

#### 2. galdera:

Haur-eskoletan eskainiko diren unitate kopurua eta hizkuntza-modalitatea onesteko Departamentuak erabilitako irizpideak barnekoak dira. Alabaina, Hezkuntza Departamentuak toki entitateei justifikazio zehatzagoa eskatu izan dienean igorritako proposamenari buruz, hitzez azaldu dira erabilitako irizpideak.

Iruñean, 2021eko martxoaren 5ean

Hezkuntzako kontseilaria: Carlos Gimeno Gurpegui

## **Galdera, Nafarroako Gobernuaren Audenasarentzako ekarpena kalkulatzeko lantaldeari buruzkoa.**

### **FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA**

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betetz, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Maiorga Ramírez Erro jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Gobernuaren Audenasarentzako ekarpena kalkulatzeko lantaldeari buruzkoa. Galdera 2021eko otsailaren 12ko 19. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2021eko martxoaren 4an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **ERANTZUNA**

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Maiorga Ramírez Erro jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean 2021eko otsailaren 12an argitaratua (10-21/PES-00064). Hona Ekonomia eta Ogasuneko kontseilariak horri buruz ematen dion informazioa:

*Nafarroako Gobernuaren Audenasarentzako ekarpena kalkulatzeari buruzko galderaren erantzunean ondokoa esaten zen: “Gaiaren garrantzia eta bere analisiaren konplexutasuna ikusirik, iragan maiatzaren 19an Audenasaren administrazio-*

*kontseiluak, zeinaren % 50 Nafarroako Gobernuarena baita, erabaki zuen lantalde bat osatzea, egoera aztertu eta proposamen bat egingen duena, kasua bada, Nafarroako Gobernuari helarazteko”.*

*Horri buruz, parlamentari honek honako hau jakin nahi du:*

*Lehena. Nortzuek hartu duten parte lantalde horretan (izen-abizenak eta ordezkatzan duten erakundea).*

*Bigarrena. Egin diren bilerak eta bilera horien datak.*

Eskaera horri dagokionez, adierazi behar dizugu lantaldea Audenasaren administrazio-kontseiluaren esparruan eratu dela. Audenasa enpresa pribatua da, eta, beraz, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 14.2 artikulua babesean, ez da bidezkoa eskatutako informazioa igortzea.

*Hirugarrena. Proposamena Nafarroako Gobernuari helarazi zitzaion data.*

Parlamentari horrek egindako PEI-00130 informazio-eskaerari erantzunez adierazi den bezala,

ez zaio formalki inolako proposamenik aurkeztu Nafarroako Gobernuari.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betez.

Iruñean, 2021eko martxoaren 4an.

Ekonomia eta Ogasuneko kontseilaria: Elma Saiz Delgado

---